

## EUSKAL-FĒSTAK DONIBANE GARAZIN



Otoiztu dut Sarako jaun erretora, jakiteko zerbeit, Madalen Larralde Sarako martiraren gainean, zoinaren istorioa ezagutua baita arras ongi Sarako jendez. Jaun erretorak egorri nau lan ori.

*Ene primak emanak izanen dire Donibane Garazin, buruilako illabetian. Orok suyeta bera izanen dute; au da: «MADALEN LARRALDE SARAKO MARTIRAREN ISTORIOA». Chuchen den berela primak izanen dituzte obekiena istorio oripresentatzen dutenek.*

*Lan oriek errezebituak izanen dire Lasserren imprimerian, Bayonan, Gambetta-ren karrikan, uztailaren leen arte.*

Aditu dut Askaindar baten ganik neskatcha ori *Magnificat* kantatuz zuala gillotinarat. Sarako jaun erretorak eta bertze frangok erran dute kantatzen zuela *Salve Regina*. Menturaz biak kantatzen zituen. Guzien gainetik neskatcha eskualdun ori izan da martirak bezen andi, zeren naiago izan duen il, ezen ez gezur tipi bat erran.

Badakite guziek Eskualdun gizonak fechoak direla; bainan nai nuke jakin dezaten ere, Eskualdun emazteak fechoago direla.

ANTUN ABBADIA, Subernoarra.

### MADALEN LARRALDE, SARAKO MARTIRA-REN KONDAIRA

Duela mende bat zen, chuchen chuchena mintzatzeko; milla zazpi eun eta lauetan ogei eta amalauean: Frantzia guzian, Eskual-errria barne, nausituak ziren gaiſtaginak, Jainkoaren etsaiak. Elizak etsiak ziren edo aberetegi bilakatuak, il etzituzten apezak, gordeak edo iesi guanak. Ez mezarik, ez sakramendurik errietan, ichilka baizen, eta gaiz-

kirik andiena lepoa mozten edo itotzea zakarken gaizkia, zen girstino uratsetan agertzea.

Bada Sarako errian, *Larrondo-Chaarrean* (orai *Beltchaenea* deitzen da etche hura), bizi ziren denbota izigarri etan, beren anaia *Piarresekin* lau etcheko alaba *Graziana*, *Garachina-Chiki*, *Maria* eta *Madalen Larralde*. Lauak Jainkotiarrak, bainan guztiz azkena.

Bertze asko bezala, Sarako apezak, *Teillary* erretora, *Bordagibel* eta *Laetusan* bikarioak, auk biak erriko seme.

Espainiarat iesi guanak ziren. Etortzen ziren bai aal bezain maiz errira, sakramenduen ichilka eta gordeka emaitera. Bainan alere etzen errech eiekin kofesatzea, eta Sarako jendea bazoan ala *Berrako*, ala *Zugarramurdiko* apezetara.

Egun batez, *Berrako kaputchinetan kofesaturik Madalen Larralde* etcherat eldu zen *Lizuniako* errekan barna. Bakar bakarra guana ote zen, ala lagunetarik bidean berechia? chuchen ez dakigu. An beinik-bein bakarrik zen. Eta una nun soldadu batzu ateratzen zaizkon sasitik.

Nondik eldu zare? diote galdatzen.—Berratik.—Zertara guana zinen *Berrara*?—Kofesatzera.—O! chuur baduzu, etzazula olakorik erran, olakorik aitortzen baduzu, zureak egin du.—Nai badu bai, bainan ez-tut gezurrik erranen. Nitaz egizue nai duzuen

Soldadoek orduan aitzen dute eta erematen beren aitzindari *Pinet* (gaztea) yeneralaren gana. Uni ere urrikaltzen zaio neskatcha gaztea, unek ere nai lioke erranarazi Espainiara gana zela, edo *Frantziako* naasmenduek iziturik, edo aaide zenbaiten ikustea gatik. Bainan *Madalen* itz berean dago; kofesatzen izan da eta ez-tu bertzerik erranen. Gezurrik ezta aren aotik ateratuko.

Donibane Loizunen zen eskualde artako tribunala, Donibaneko plazaren erdian gau eta egun chutik, beri odoln egarri, *gillotina*. Agorrlilaren ogoi eta zazpian *Pinel* yeneralaren anaiak manatzen du *Madalen* ereman dezaten Donibanerat, an jujatua izateko. Bildotch ez-tia otsoen artean, zenbat etzuku pairatu bide luze ortan! Errana da, soldadoek chizpa zurez joka zarabilatela, oi-u eginarazi bearrez: *Biba la nazon*, *Madalenek* aldiz beti iardesten: *Biba la religion!* *Nazione* pulita alainanba orduan gure *Frantzia* maitea, beren meneko zaukaten eta aren izenean mintzo ziren auekin. Nausi eiek egiazki iduri baitzuten debru gizon eginak!

Olako gizonen biotzean nola izanen zen urrikalmendurik *Madalեն* nentzat. Eta bertzenaz ere, neskatcha gazteak *Berrara* kofesatzera gua-

na zela erraitearekin, naiz bazakien, emen Saran bezala, aitortzea bezain segur iltzea izanen duela, garbiki dio: Kofesatzen nintzen.

Bereala iltzera kondenatzen dute. Bainan *Madalen* ezta kantitzen.

Ezta geiago kantituko sarri, *gillotinarat* erematen dutenean, tresna ikaragarria agertzen zaionean. Aren ondoan iragaiten denean, ain gazte, ain laño, ain amultsu ikustearekin, jendea nigarrez dago, *Madalen* aldiz, begiak zerurat altchatuak, kantu ezti batean ari da, kantatzen du *Salve Regina*, iduri du jadanik lurra utzia duela, iduri zeruko erregina, bere ama ona bidera eldu zaiola ikusirik, dioela agur egiten *Salve Regina!* otoitz orren azken itzak kantatu dituen bezain laster, lepoa mozten diote.

Errana da, *Madalen gillotinara* urbiltzearekin tiro bat aditu zela, errana tiro una egin zuela aren anaia Piarresek, bere arrebaren etsai norbait il naiz. Bainan oriek ez dire *omenak* baizen. Ez *omena*, bainan osoki segura den gauza au da: Saratar neskatcha batek, *Madalen Larralde*k, naiago izan duela il, ezen-ez gezur chume bat erran, ezen-ez den gutiena bere arimaren edertasuna istu. Ori badakite Sarako jende guziek; ori elizatik errepikatu izan dute, eun urte untan, Sarako erreter guziek.

Ochala baginu bekatuarentzat, eta bereziki gezurrarentzat, *Madalen Larralde*k zuen beldurtasuna eta igintza! Makur gutiago liteke bazterretan.



Lenbiziko sariya irabaziko du Sarako martiraren kondair'au ber-sozko kantu batean obeto jartzen duenak.

